# AMESLARIOK... ZER BERRI?

Herri Ametsa Ikastola
*Ikastola txikia, familia handia*

ASTEKARIA: 50. atala | DATA: 2025/10/24

## GUREAN

### BIBA ZUEK SAIOA... IKASTOLAN!

Etb1eko “Biba Zuek” saioko lagunek bisita egin digute. Mikel Elizegi eta bere lantaldea etorri dira gaur guregana bi atal grabatzeko. Alde batetik, "Gezurtron" LHko 1. mailako 4 umerekin egin dute eta gure ikasleen sekretuak ezagutzen saiatu dira. Beste alde batetik, "Teacher Elizegi" atalean, gaur egun munduan pil-pilean dauden gaiei buruz hitz egin dute. Umeen ikuspuntua ezagutzea da helburua.
Maddalen Arzallus bertsolariak eta Xabier Sukia esatariak aurkezten dute magazina. Zuzeneko konexioak eta kolaboratzaile zerrenda luzea dute astelehenetik ostiralera 18:00etatik aurrera.
Gaurko grabaketa noiz emituko den jakin nahi baldin baduzue, adi sare sozialetan!

## GURE INGURUAN

### SWEET MEET 25

**NOIZ: URRIAK 25-26**
**NON: PASAIA**

Urriaren 25 eta 26an, Pasaia motorrarekin lotutako ikuskizunen epizentroa izango da. Udalerriak ekitaldi berritzaile baten aldeko apustua egingo du, non automobila izango den protagonista nagusia, aldatutako autoen azken diseinu eta modeloen erakusketarekin. Sweetmeet elkartearen ekimena da, eta Pasaiako Udalaren laguntza du.

**INFO+**

## BAZEKITEN?

Baratzean buru belarri egin dute lan DBHko 1. mailako ikasleek aste honetan. Garaian garaikoa ereitea da helburua. Euskaraz, naturan eta lantaldeetan ahalegina egin dute gure lurra zaintzeko eta aste batzuk barru etekin txiki bat ateratzeko.

**ZUEN PROPOSAMENAK HONA BIDALI:**
**melvira@herriametsa.eus**